

Etika eta jokabide kodea

Ihobe

2011ko apirila



Herri-batzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Ihobe Sozietate Publikoaren xedea da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari laguntzea ingurumen-politikaren garapenean eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura Euskal Autonomia Erkidegoan hedatzeko lanean; horretarako, gure jardueren bikaintasuna eta eredugarritasunera orientatutako kudeaketa eredu bat hartzen ditu oinarritzat, zeren alderdi horiek bereziki garrantzitsuak baitira Sozietate Publiko batean.

Ihoberen Jokabide eta Etika Kodeak barne hartzen ditu erakunde honetako pertsona guztiei beren jardura betetzean eta interes-taldeekiko harremanetan aplikatzen zaizkien balioak, jokabide-jarraibideak eta erantzukizunak.

Gure enpresaren balioetan oinarritzen da:

- Sinesgarritasuna eta inplikazioa.
- Kudeaketa eraginkorra eta taldekako lana.
- Aldaketarako gogoia kutsatzea.
- Gure ingurunetik eta gure ingurunerantz.

Lehengo balio horiek lortzeko eta mantentzeko xedez Ihobek kode honen bitartez sustatzen dituen jardute-printzipioak hauexek dira:

- Legeak, arauak eta araudiak betetzea.
- Gobernu korporatiboa eta gardentasun informatiboa.
- Errespetuzko trataera Ihobeko pertsonekin eta bere pertsonen artean, bezeroekin, hornitzaileekin eta interesatuta dagoen beste edozein hirugarren alderdirekin.
- Enpresaren ondasunak babestea eta modu egokian erabiltzea.
- Konfidentzialtasuna informazioaren eta datuen erabileran.
- Ingurumena babestea.
- Konpromisoa eta erantzunkidetasuna Gizartearekin.
- Interesen arteko gatazkak konpontzea.

Kode honen aplikazio-eremuak erakunde osatzen duten pertsona guztiak hartzen ditu barne:

- Zuzendaritzako pertsonala.
- Ihobeko pertsona guztiak.
- Administrazio Kontseiluko kideak, beren jokabide kode propioan kontuan hartzen ez diren alderdietan.

Lege, arau eta araudiei dagokienez:

- Ihobeko pertsona guztien ardura da beren eginkizunari, ardurari eta lanpostuari aplikatzekoak diren legeak ezagutzea eta betetzea.
- Ihobek beharrezkoak diren tresna guztiak jarriko ditu bere langileen esku, beren laneko eginkizunak betetzerakoan aplikatzen zaien legedia ezagutu eta ulertu dezaten.
- Ihobek beharrezkoak diren tresna guztiak jarriko ditu Ihobeko pertsona guztien esku, Etika Kode honetan bildutako jardute-printzipioak bete ditzaten eta errespetarazten lagundu dezaten

Gobernu Korporatiboari eta gardentasun informatiboari dagokienez:

- Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jardute-printzipioak garatzea eta ezartzea, eta baita beraren antolaketa eta funtzionamenduekin eta sozietatea osatzen duten pertsonen jokabide arauak ere, hori guztia kudeaketa ahalik eta eraginkorrena lortzeari begira.
- Informazio esanguratsu, nahiko eta egiazkoa eskaintzea interes-taldeei, horietako bakoitzarekin dauden harremanak errazteko xedez.

Ihobeko pertsonekin eta pertsonen artean:

- Ihobeko pertsona guztiak duintasunez, errespetuz eta justiziaz tratatzea, haien desberdintasunak kontuan hartuta: sentikortasun kulturala, sinesmenak eta bestelakoak.
- Bermatzea Ihobeko pertsonak ez direla diskriminatzen beren kondizio pertsonal edo sozialagatik, hau da, beren merezimenduekin eta gaitasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.
- Ez onartzea inolako indarkeria, jazarpen edo abusurik lanean.
- Ihobeko pertsona guztien garapen, prestakuntza eta promozio profesionala sustatzea.
- Taldekako lana sustatzea, erraztea eta akuilatzea. Ihobeko pertsona guztiek lankidetzara gogoaz jardun behar dute, horren bidez helburu eta interes globalak lortzen laguntzeko.
- Eraginkortasunez lan egitea, denbora eta enpresaren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz.
- Bermatzea Ihobeko pertsona guztien promozioa merezimendu eta gaitasun irizpideen arabera egiten dela.
- Laneko segurtasun eta higiena bermatzea, laneko arriskuen prebentzioa maximizatzeko arazoizkoak diren neurri guztiak hartuz.
- Ihobeko pertsona guztien laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzea enpresatik.
- Desgaitasunak edo minusbaliotasunak dituzten pertsonen lan integrazioa segurtatzea, beren integrazioa eragotzi lezaketan oztopo guztiak enpresatik ezabatuz.
- Ihobeko pertsona guztiei erraztea enpresaren gizarte ekintzako programetan parte hartzeko bidea.

Ihoberen bezeroei dagokienez:

- Bezeroekiko harremanak modu etikoan, zilegian eta errespetuz gauzatzea.
- Bikaitasuna bilatzea enpresak betetzen dituen zerbitzuetan, gure bezeroek lortu dezaten hortik espero duten gogobetetasuna.
- Erreklamazioak eta kexak arin eta eraginkortasunez tratatzea, indarrean dagoen legedia betetzearekin konformatu gabe, hau da, gogobetetasun handiagoa bilatuz hortik harago.
- Bezeroak ekitatez tratatzea.

Ihoberen hornitzaileei dagokienez:

- Hornitzaileekiko harremanak modu etikoan, zilegian eta errespetuz gauzatzea.
- Ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatzea hornitzaileen aldetik, haien gogobetetasuna bilatzeaz batera.
- Beren enpresa-jokabidearen bidez legea hausten ez duten eta Ihoberen ospea arriskuan jartzen ez duten hornitzaileak bilatzea eta aukeratzea.
- Hornitzaileak aukeratzekoan, irizpide hauek hartzea oinarritzat: haien produktu eta zerbitzuen egokitasuna, ingurumena, jokabidea eta beren produktu eta zerbitzuak hobetzeko ahalegin etengabeak, haien prezioa, entregatzeko baldintzak eta kalitatea.
- Hornitzaileak ekitatez tratatzea, haien arteko lehia nahastu dezakeen opari edo komisiorik onartu gabe.

Ihoberen ondasunei dagokienez:

- Ihobeko pertsona guztiak saiatuko dira Sozietatearen ondasun, informazio eta zerbitzuak eraginkortasunez erabiltzen; ez dituzte beren onura propiorako erabiliko, eta ez dira beren postuaz baliatuko ondare-abantaila edo abantaila pertsonalik lortzeko, ezta negozio-ukera propiorik lortzeko ere.

Informazioaren eta datuen erabileraren konfidentziasunari dagokionez:

- Ihobeko pertsonak ez dute erabiliko beren onura propiorako edo hirugarrenen onurarako beren jarduera betetzean eskuratutako datu, informazio edo dokumenturik.
- Konfidentziasunerako betebeharrak bere horretan iraungo du Sozietatean gauzatzen duten jarduera bukatzen denean; horrekin batera, Sozietatearekin duten lotura bukatzen denean, beren eskuetan duen Ihoberen edozein materiala itzuli beharko dute.

Ingurumenaren babesari dagokionez:

- Baliabide naturalen erabilera eraginkorra sustatzea.
- Gure jarduerak ahalik eta ingurumen-inpaktu txikienez garatzea, indarrean dagoen legedia zorrotasunez betez.
- Ingurumen-irizpideak ezartzea erosketa eta kontratazio prozesuetan.
- Ingurumena erabiltzea Ihoberen jardunbide eta lan formen ardatz integratzaile bezala, eta baita gure interes-taldeen harremanetan ere.
- Ihobeko pertsonen ingurumen- eta gizarte-konpromisoa areagotzea.

Interesen arteko gatazkei dagokienez:

- Etika Kode honetan bildutako jardute-printzipioak betetzeko eta errespetarazten laguntzeko beharrezkoak diren tresna guztiak jartzea Ihobeko pertsonen esku.
- Etika Kodearekin bat ez datozen jokabideak edo jarduerak konfidentziasunez komunikatu ahal izateko mekanismoak eskaintzea Ihobeko pertsona guztiei.
- Tresna eta mekanismoak eskaintzea Ihobeko pertsona guztiek hobekuntzak proposatu ahal izan ditzaten.

Gizarteari dagokionez:

- Interes-taldeen itxaropenak eta eskariak integratzea Ihoberen strategiaren definizioan.
- Kolektibo baztertuen laneratzea sustatzea.
- Ingurumenaren babesa sustatzea, ezagutzaren transferentziaren bidez, egoera txarragoan dauden gizarteetan, beste erakunde edo GKE batzuekin batera.